


baleike

zumaiarrak kirolean
txapeldun!



“KOLORE” ARGAZKIA, BALEIKEN IRABAZLE

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Itziar Garate

Izaskun Urbietta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Mikel Olasagasti

Joseba Alkorta

Kolaboratzaileak

Juan Luis Romatet, Xebas Leiza,

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Unai Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola, Iker G. Cobeaga

Azalaren argazkia

Ines Aseginolaza

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleike

ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
orain 10 urte	5
ze berri	6
olarru zopa	11
elkarriketa	
inaxio letamendi	12
erreportajea	
piraguismoa	15
euskara	
xabier azkue	21
kultura	
gaztetxola	23
parrokiko organoa	25
zinemaldi soziala	27
zine forum	29
agenda	30



Oier Aizpurua txapelduna!

“Jendeak esaten zidan ondo egin behar nuela, zaletuak zain nituela eta kriston giroa ari zirela sortzen”

BALEIKEn bulego ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiralean 12etatik 13etara eta ostegunetan 18etatik 19etara

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



kutxa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA) diruz lagundutakoa

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Zumaia



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

K O N T R A ?



xa2

Bat esan eta bestea egin. Hau predikatu eta hura praktikatu.

Kontraesanen erresuma hedatua daukagu oso.

Que me quiten lo bailao! esamoldea bizi filosofia bihurtu dugu.

Nola esan, neu ere leporaino lokatzetan

sartuta nagoela kontraesanen kontu

honetan. Orain hilabete batzuk, *EZkontza* izeneko artikulua idatzi nuen bazter honetan. Eta bihar ezkontza batera noa. Aurreko astean beste batean izan nintzen; gainera, ohorezko agurra egin genien elizatik irtetean.

Aste honetakoei ezkontzako gonbidapenak egin nizkien.

Baina hala eta guztiz ere, ni ziur nago oraindik ezkontzen zirko honekin ez nagoela batere ados.

—Ba, orduan ez joan, ez egin gonbidapenak, ez kolaboratu, ez baleude bezala... Zuk ezetz, eta segi zeure bideari.

Erraza da esatea, eta hemen idaztea. Baina, nola esan, batzuetan neure bidea aldatu egin didatela iruditzen zait.

—Besteei errua botatzen orain ere, errazena.

Arazoi. Eman diezaiozun buelta. Kontraesanen

antipodetan dago, aldare sakrosantuan, Koherentzia izeneko kontzeptu ezezaguna. Gehiengo handi batek onartua daukagu kontraesanekin bizi behar dugula, eta guztiz koherentea izatea ezinezkoa dela. Pako Aristik idatzi zuen, institutueta irakatsi beharko luketen poesia batean: *Hau da Euskal Herria: burges putaz beteta dagoen munduko herririk iraultzaileena*. Militantea eskiatzera doa, funtzionarioa Chiapasen izan da... eta horrelakoak. Etengabe bila genitzake kontraesanak. Eta pozik bizi gara, normala balitz bezala. Ni behintzat bai. Hori gutxi balitz, koherentzia mantentzen saiatzen direnak erradikaltzat jotzen ditugu. Bai ezkerrekoak, baita eskuinekoak ere.

—Ez dago guztia muturrera eraman beharrik.

—Ez du besterik buruan, obsesionatuta dago.

—Koherentziak ez du bizi kalitateak adina balio.

—Horretarako bakarrik bizi da.

Alegia, guk ez dugu kontraesanak gaintitzeko ahaleginik egiten, eta egiten dutenak gurutziltzatzen saiatzen gara. Okerrena da, kontraesan hauek betiere eredu atzerakoien aldekoak izan ohi direla, eta norberaren jarrera txiki horiekin mantentzen dela sistema osoa. Eta amorrua ematen du. Baina berdin jarraitzen dugu. Eta bihar ezkontza.

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Airra** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
french
euskara
englantí
español
catalonian
suomi basc
català finnois
francés anglais
catalán française
castellano finnish
inglés baski catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.



**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

orain 10 urte

Kirolariak, orgasmoak eta kartzela



Ordura arte igarotako kartzelaldia eta ezagututako espetxeak nolakoak izan ziren, esperientziak eta egindako harremanei buruz hitz egin zigun Ixiarrek orduko hartan. Honetan ere aldatu al dira gauzak...? Bueno, Ixiar kalean da, baina... Hitz egin beharko genuke, akaso, berarekin...

Orain 10 urte... erdi-abesten etorri zitzaigun Mofli "Nola aldatzen diren gauzak...", Taosa Boys (zein dira horiek...), askatasun baloreak...

Horiek denak ez dakit aldatuko ziren, baina antzeko jarraitzen dugu beste gauza batzuetan... eta bestela galde diezaiotela "Emakumearen orgasmoari buruz" idatzi zuenari... Orain 10 urte bezala, oraintxe ere oso gaurko artikulua iruditzen zait niri, zoritxarrez...

Orain 10 urte, Ixiar Arrizabalaga egin genion elkarrizketa. Garai hartan Lugoko Bonxen zegoen kartzelan Ixiar.

Orain 10 urte, hiru urte bete ziren Txatoren hilketaz. Eta oraindik ere jakin gabe jarraitzen dugu...

Orain 10 urte, bestalde, karmeldarrak 125 urte egiten zituzten gure artean, eta orduko aldizkarian genioen ze garrantzitsua zen



haiantzat garai berrietara egokitu beharra... Gurasoei eta ikasleei galdetu behar. Haurtzaindegian sartzea, behintzat, merkeagoa da eta...

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurrun ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurrun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Emilio Perez
Elektronikari, telebista eta instalazio elektronikoen salmenta eta konponketa

ADI

BASADI 2 B
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

Goikoetxeak eta Enbilek, laugarren titulua

Egiguren eta Lopezek eman dute txapelketako ezusterik handiena. Biak iragan astean etorri ziren Daniatik, eta partida luzeetara egokitzeko astirik izan ez duten arren, bikain ibili dira. Uda garaian onean izan ziren kinieletan. Egigurenek bi urte zeramatzan Euskal Herrira partida luzeak jokatzera etorri gabe.

Azkenean, onenak Goikoetxea eta Enbil.

Zesta Puntako Munduko Txapelketako finala jokatu aurretik garaipena ospatzen hasiak ziren Zumaian; izan ere,



Munduko zesta-punta Txapelketako finalerdien ondoren jakin zen: Gernikako Jai Alai frontoian final nagusia jokatu zuten lau pilotariek hiru, zumaiaarak, Zumaia harrobitik irteerakoak.



munduko txapeladuna zumaiaarra izango zen. Zakila Biran ere bozgoragailuetatik eman zuten berria: «Gotzon Enbil eta Iñaki Goikoetxea zumaiaarak finalera iritsi dira eta, beste zumaia bat izango dute arerio, Imanol Lopez».

Bi zumaiaarak azken partidari 35 eta 25 menderatu zituzten Egiguren II. eta Lopez. Finala txapelketa osoko neurketarik onena izan omen zen eta oso tanto ikusgarriak ikusi ziren.

Tapaia
Antena

Enbiko Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

Arkupe

Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza 943 86 19 16

Munduko laugarren txapela irabazi berritan Gotzon Enbilek: "Hau izan da txapelik gogorrena; inork ez dezala pentsa erraz irabazi dugunik"

Goikoetxearekin batera egindako ibilbide oparoak eta herenegungo finalean hiru zumaiar presente izateak agerian uzten du herrian nolako harrobia dagoen.



Azkenean, onenak Goikoetxea eta Enbil izan ziren.

Hurrengo eguneko prentsa guztian aipatzen zenez, lau pilotarien artean Goikoetxearen lana nabarmendu behar da, Zumaiakoa finaleko onena izan zen eta.

Partida gogorra izan omen zen. Bi zumaiarrak beren jokoa egitera irten ziren, azken txanpan beste bikoteak behera egin zuen fisikoki, eta hor irabazi zuten Enbilek eta Goikoetxeak. Gotzon Enbilek hurrengo egunetako prentsan adierazi zuenez, aurkariak nekaraztea izan zen finala irabazteko beren estrategia.

Garaipena Goikoetxeak eta Enbilek eskuratu zuten, Egi-guren II.a eta Imanol Lopez bikotea gailenduz (35-25). Lope-

zen hitzetan, «Oso gustura aritu ginen 22 tantoetara arte. Handik aurrera, pilak agortu zitzaizkigun eta ezin izan genion buelta eman partidari». Era berean, txapelketa prestatzeko denborarik ez dutela izan aitortu zuen zumaiar gazteak: «Duela 2 aste etorri ginen AEBetatik, eta dagoeneko bagoaz».

Iluntzean, ongi etorria eta omenalditxoak egin zieten Udalak eta herritarrek txapeldunei. Txarangaren laguntzaz Erribera kaletik Kofradiara abiatu ziren, eta geroago, San Juan Iturrira.

Urrian zesta puntako banakako txapelketa jokatu-ko dute eta hilabete amaieran, berri-ze, AEBetara joango omen dira. Datorren udan itzuliko dira berriro ere etxera.



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

dekorazioa
ALBERDI



696 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a



MENDI - ONDO c.b.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

BALEIKERen Udako II. Argazki Lehiaketa

Gorka Zabaletaren argazkiak sekulako arrakasta izan dute.

Zorionak eman behar dizkiogu; izan ere, bi lagunentzako afariaz gain liburu sorta ere irabazi du...



Gorka Zabaletaren "Kolare" izeneko argazkiak irabazi du lehiaketa.

Badakigu zein den Baleikeren 2006ko Argazki Lehiaketako argazkirik onena: "Kolare" argazkia aukeratu du epaimahaiak, eta Gorka Zabaleta da egilea. Beraz, txapelari eutsi dio!

Gorkak, beste batzuk bezala, argazki ugari bidali ditu eta, egia esan, epaimahaikideek oso puntuazio ona eman diete bere argazkiei. Gauzak horrela, oso zaila izan zaie irabazlea

aukeratzea, baina azkenean, "Kolare" argazkiak eramango du saria: bi lagunentzako afaria.

Epaimahaiak oso puntuazio ona eman dio argazki bitxi bati ere: Peio Romatetek bidali zigun Deabrua argazkiari.

Epaimahaia Juan Ramon Llaborik eta Karmelo Fernandez Arroiabek osatu dute.

Baleike.com-eko irabazlea

Bestalde, baleike.com-eko erabiltzaileek ere erabaki duzue zein den liburu sorta eramango duen argazkirik onena: berriz, Gorka Zabaleta! Kasu honetan, hainbat argazkik jaso dute antzeko puntuazioa; berdinketaren aurrean, boto kopuru gehiago jaso dituen atera da irabazle: La gaviota argazkia.


Sartu eta ikusi zein argazki ederrak parte hartu duten lehiaketan! Argazki artxiboan sartu eta Kultura karpeta barruan dago Argazki Lehiaketa 06 albuma.

Aurten, iaz baino argazki gehiago jaso ditugu (33) eta hamar bat lagunek hartu dute parte bere argazkiekin. Segi horrela!

Parte hartu duzuen argazkilari guztioi animo hurrengo urterako ere!



Goiko argazkiak webguneko erabiltzaileen saria jasoko du. Horrelako argazki ederrak bidali dizkiguzue.



Peioi Romatetek eta Luis Llaborik irabazi dute aurtengo Olarro Eguneako argazki rallya

Romatetek argazki digitalen atalean irabazi zuen, eta Llaborik diapositiben atalean.

Rallya irailaren 16an egin zen, Olarro Egunean. Euria ugari egin zuen hasieran, eta argazkilariek zailtasun handiak izan zituzten argazki onak ateratzeko.

Parte hartzaileek hainbat irudi aurkeztu behar zituzten, zenbait gai kontuan hartuta: olagarroa, festa, Zumaia txokoak, gastronomia, etab.

Hamahiru argazkilarik hartu zuten parte bi kategoriatan: argazki digitalen eta diapositiben atalean.

Epaimahaikideak Fermín Etxeberria, Txema Fernández eta Aitor Leizak osatzen zuten. Urriaren 4an elkartu ziren, eta sari banaketan esan zutenez, nahikoa eztabaidatu zuten sariak nori eman erabakitzeko.

Diapositiben atalean bigarrena Patxi Badiola izan zen, hirugarren Fernando Anza eta bertako argazkilaria onenaren saria Javier Carballorentzako izan zen.

Argazki digitaletan, Peio Romateten atzetik geratu zen Carlos Mediavilla, hirugarren Iñaki Etxenagusia, eta bertako onena Carlos Callejo.

Sariez gain, irabazleek Zumaia San Pedro parrokiaren erreprodukzio lanak jaso zituzten opari.

Sari banaketaren aurretik, lehiaketan parte hartutako argazki guztiak ikusi ahal izan ziren. Argazki rallyko argazki onenak erakusketan ikusi ahal izango dira, 2007ko Olarro Egunaren baitan.

Horretaz gain, esan behar dugu, Luis Llaborik erronka handi bat izango duela orain; izan ere, bere argazkietatik sei aukeratuak izan dira Pyrenaica aldizkari ospetsuaren XXIV. mendiar buruzko argazki lehiaketarako. Aldizkari ezaguneko arduradunek lau argazkilariren lanak hautatzen dituzte, eta horien irudiak argitaratu. Luis Llaboriren argazkiak aldizkariaren 224. zenbakian ikus ditzakezue. Gero erabakitzen dute aipatutako lau argazkilarietatik nork irabazi duen lehiaketa.

IRUDIA:
J. L.
ROMATET



Argazki rallyko irabazleak eta udaleko ordezkariak.

Potxak galeperrekin

Sukaldaritza

O

OSAGAIK (6 lagunentzat)

- 6 galeper
- 500 g potxa (garbituta)
- 2 piper berde
- 1 tipula, 4 azenario
- tomate saltsa basokada bat
- koñak basokada bat
- 2 baratxuri ale
- txerri gantza puska bat
- haragi salda
- gatza

Nola prestatu:

Potxak sutan jarri kazuela batean. Ur hotza jarri potxak erabat estali arte. Su motelean egin, eta ura lurruntzen doan heinean ur epel apur bat bota. Prozesua behin eta berriz errepikatu potxak eginda egon arte; samurrak egon behar dute, baina oso-rik. Gatza bota, behar hainbat.

Bestalde, galeperrek sutan jarri txerri gantzarekin. Horri gehitu azenarioak, baratxuria, piperrak eta tipula. Ondoren, koñaka bota, eta tomate saltsa eta haragi salda ere bai. Bertan utzi egi-ten, 45 bat minutuan.

Behin eginda dagoenean, galeperrek atera eta geratzen den sal-
tsa iragazi. Gatza bota.

Bukatzeko, saltsa horretatik pixka bat potxei bota (sukaldariak nahi hainbat); galeperrek erdibitu eta potxekin jarri. On egin!

Beñat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria



Oharra: potxak freskoak izan behar dute (garaikoak). Ez dira uretan beratzen jarri behar. Gainera, plater honek baditu beste aukera batzuk ere; esate baterako, txirlekin, langostinoekin eta abarrekin jar daiteke.



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



inaxio letamendi kirolaria

"Atletismoaren hutsunea handia da"

Makina bat lasterketa ezagutu
eta irabazi ditu Inaxiok.



X. Zakila Bira lasterketa korritu zen iraileko azken larunbatean, eta urtero bezala atleta izandako herritar bat omendu zuten, aurten Inaxio Letamendi.

JOSEBA ALKORTA eta MIKEL OLASAGASTI

Gaur egun Donostian bizi zaigu Inaxio, baina bere herria ez du ahaztu eta bihotzean darama. 60ko hamarkadan, jubenila zela, atletismoan aritu zen 400 metroko hesi lasterketan eta pisu jaurtiketan. Hala ere, bere kirol ibilbidea ez zen atletismora mugatu, futboleko eta palan ere aritu baitzen. Azken horretan, Gipuzkoako zein Espainiako Txapeldun izatea lortu zuen.

Harritu egin al zaitu Zumaiako herriak omendu nahi izatea? Harritu baino gehiago, sorpresa izan zen niretzat. Izan ere, banekien lasterketa hau antolatzen zutela eta orain sei-zazpi urte inguru herriko atleta ohiak omentzen zituztela. Baina nik uste nuen omendutakoek oraindik ere lasterketetan parte hartzen zutela beterano mailan. Oker ez banago, Xalbador omendu zuten lasterketan parte hartu zuen egunean.

Sorpresa, gainera, bikoitza izan zen, aspaldidanik kanpoan bizi naizelako eta nire herria nitaz gogoratzea pozgarria eta aldi berean harrigarria delako.

Omenaldian, zure bihotz zumaiarra goraipatzen zen, nahiz eta Donostian bizi. Hainbesterako al da?

Zumaiartzat dut neure burua, bertan jaioa naizelako. Emaztea eta seme-alabak ere bertakoak ditut. 1974an, lan kontuak zirela medio, herria utzi behar izan nuen, Donostiara joateko. Hala ere, Zumaian genuen etxea mantendu genuen eta beti uda igarotzera herrira etortzen ginen. Beti eraman izan dut Zumaia bihotzean. Gero, gainera, kirol mailan, nahiz eta Donostian bizi, Zumaiko klubaren izenean hartu izan dut parte.

Garai haietan atletismoa ez zen oso ohiko kirola. Nolatan hasi zineten praktikatzen?

1961ean, hamabost urterekin, hasi nintzen atletismoa praktikatzen. Eskolan kirol batzuk egitera bultzatzen gintuzten: esku pilota, futbola edota atletismoa. Nik atletismoa aukeratu nuen, eta hondartzara joaten ginen lasterketak egitera.

Hala ere, benetan atletismoaren "zomorroa" Joseba Yereguik, Joseba "Artia"-k, Xalbadorrek eta Miguel Angel Urangak

piztu ziguten. Haien atzetik gazte koadri-la bat hasi ginen atletismoa praktikatzen, eta asko lagundu ziguten. Urte haietan, lagun horien bitartez, Club Atletico Zumaia sortu zen, eta Miguel Angel presidente zen.

Gaur egun Club Atletico Zumaiairen berri askorik ez dugu. Zein zen bere jarduera?

1961ean sortu zen eta Miguel Angel zen presidente. Laguntzaile eta federatibo moduan Luis Mari Aizpurua, Mariano Berastegi, Juanito Linazasoro eta Fermin Elosua. Astelehenetan, Bar Cantabrimon biltzen ginen eta han hasi zen txapelketetan parte hartzeko grina.

Urte haietan Gipuzkoako txapeldun izan ginen, talde gisa, hiruzpalau urtean.

Beraz, herrian bazegoen atletismo zaletasuna?

Bai, noski! Zegoen zaletasunarekin, gaur egun probak egiten diren moduan, Amaiaiko plazan atletismo proben txapelketa antolatzen zen: 100 metro, plazari buelta errelebotan, pisu jaurtiketa, luzera jauzia... Maiatzaren lehen izaten zen txapelketa eta jendetza biltzen zen plaza inguruan.

Zein izan zen zure lorpenik handiena atletismoan?

Nire lorpenik gogoangarriena, Gipuzkoako 400 metroko hesi lasterketan lortutako txapeldunordetza izan zen. Horri esker, Gipuzkoako selekzioaren deialdian sartu nintzen Palentzian



"Joseba Yereguik, Joseba "Artia"-k, Xalbadorrek eta Miguel Angel Urangak piztu ziguten atletismoaren "zomorroa" "

jokatuko ziren Espainiako txapelketetan parte hartzeko. Bertan, kontsolazio finalean garaipena lortu nuen.

Gaur egun, atletismoa praktikatzeko kiroldegia daukagu herrian, baita korrika egiteko leku ugari ere. Garai hartan, non entrenatzen zineten?

Egia esan, entrenamendu aproposak egiteko ez zegoen leku egokirik herrian. Hondartzan ibiltzen ginen, eta Udolari makina bat eskaera egin ondoren, gaur egun Maria eta Jose ikastetxea dagoen zelaietan entrenatzeko nolabaiteko "pista" egitea lortu genuen. Guretzat hura egundoko atletismo pista zen.

Gure materialak ez ziren egokienak. Adibidez, altuera jauzia egiteko kanabera eta lokarri batzuk ipintzen genituen. Nik eta Txominek hesi lasterketetan hartzen genuen parte, eta entrenatu ahal izateko bi makila eta antxoak kaxak erabiltzen genituen hesi gisa.

Nikol Enea



TABERNA

Amaiaiko plaza

ZALLA

Taberna - Erretegia

* *plater konbinatuak*
* *otartekoak*
* *oilasko erreak*

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Herrian baditugu goi mailako kirolariak, baina atletismoan ez dago ez talde ez kirolaririk. Pena edo hutsunea sentitzen al duzu?

Pena bai, 60ko hamarkadako urte haiek gogoangarriak izan zirelako. Gainera, orain Zumaian kirol giro bikaina bizi da eta lehengoaren aldean erraztasun handiak daude atletismoan aritzeko.

Zergatik uste duzu galdu dela atletismoaren praktika Zumaian?

Eskolan ez da lantzen, eta gero, gainera, atzetik ez badago talde bat edota jende multzo bat hori sustatzen duena, zaila da aurrera ateratzea. Gainera kirolak boladak bizi ditu eta agian atletismoarena etorriko da. Hala ere, bakarka aritu diren korrikalariak izan dira herrian gero-ara ere.

Egungo atletismoan dena kontrolatua dago, bai prestakuntza fisikoaren alorrean, bai medikuntzan. Zein iritzi duzu horren gainean?

Kirolaria kontrolatzea ondo iruditzen zait. Baina kontrol horrek neurrikoa izan behar du, bestela kirolariari presio handia sartzen baitzaio eta horrek emaitzetan eragin negatiboa izan bailezake. Lehen gauzak naturalagoak ziren.

Atletismoan modalitate askotan aritua zara. Zergatik?

Gurea klub txikia zen. Horregatik, txapelketetan

“Gu klub txiki bat ginen; horren ondorioz, txapelketetan puntuak lortzeko denetik egin behar izaten genuen”

puntuak lortzeko denetik egin behar izaten genuen. Nik, adibidez, pisu jaurtiketan eta 100 m-ko lasterketan zein 400 m-ko hesi lasterketetan hartzen nuen parte.

Arraroa egin daiteke hain proba ezberdinetan parte hartzea, baina nik ikusi nuen hesi lasterketetan edo pisu jaurtiketan maila ona eman ahal nuela. Beraz, bietan parte hartzen nuen Klube-rako puntuak biltzeko.

Lasterketak korritzeko bidaia bat baino gehiago egingo zenuen, eta anekdota bat baino gehiago biziko zenuen. Lehen aipatu dudan Palentziako bidai hartara hiru zumaiar joan ginen, mutil koskor batzuk ginela. Bertan, entzun genuen txokolatea jatea oso ona zela lasterketan indarra izateko; horren ondorioz, han ibili ginen txokolate tabletak jan eta jan, inongo neuririk gabe.

Bestalde, Klubean ere anekdota polit bat bizi izan genuen. Orduan sei ibiltzen ginen lasterketetan parte hartzen, eta hasieran zapatila "bambekin" aritzen ginen denok. Baina gero, diru pixka bat lortu genuenean, iltzedun zapatila pare bat erosi genuen Klubean Bernaberen neurritik, bera baitzen maila altuena zuena. Horren ondorioz, hanka neurria txikiagoa zuenak kotoia sartzen zuen zapatiletan; hanka neurri handiagoa zuenak, berriz, lanak izaten zituen zapatila haiekin lasterka ibiltzeko.



CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346

Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

Itxas-gainek irabazitako mundiala

Urte guztian egindako lanak amaiera aparta izan du piraguistentzat. Espainia mailan, ehun talderen artean bederatzigarren geratu dira, eta Xabi Osak mundialean lorturiko zilarrezko dominarekin eta Oier Aizpuruaren garaipenarekin ezin hobeto amaitu dute denboraldia.



ITSASO IBARRA

Xabi Osarentzat eta Oier Aizpuruarentzat denboraldia ezberdina izan da. Xabi Osak dioenez, "urte hasieratik ondo ibili gara. Espainia mailan ondo eta horrek animatu gaitu bukaerara gogotsu iristeko". Oier Aizpuruarentzat, aldiz, urte gogorra izan da: "Neguan lesioarekin oso gaizki pasa nuen. Mina zela eta dena uztekotan egon nintzen. Nire helburua munduko txapelketa zen, beste estropadak mundiala prestatzeko eman beharreko pausoak ziren. Urtea gaizki hasi zen, baina amaiera ona izan du".

Frantzian, Tremolat hirian, jokatu zen mundiala irailaren 20tik 24rako astean. Xabi izan zen bertan uretaratu zen lehen-dabiziko zumaiaarra. Azaldu duenez, lan asko egin behar izan zuen estropadan: "Bakarra geratu zitzaidan ondoan eta azken orduan irabazi egin zidan. Hasieran, hamar aurrenetan geratze-

Lan handia egin dute gure kirolariek lortu dutena lortzeko.





"Ilea lastu zitzaidan,
oilo ipurdia jarri,
eztarrian korapilo
bat, eta begiak
malkotan irten
nintzen uretara"

ko asmoa nuen, baina
hobeto joan zen, bigarren
amaitu nuen eta oso gustu-
ra nago".

Lorturiko garaipenari
garrantzia kentzen entzun
diogu askotan Xabiri, baina
oraingoan aitortu du egi-
koak meritua baduela: "Ez
digute ezer oparitu, sekula-
ko lana egin dugu. Zortea
eduki dut, Oierrek urtean
zehar asko lagundu didala-
ko. Berarekin entrenatu
naiz eta gauza asko ikasi
ditut".

Garaipena

Igandean, 14:30ean, iritsi zitzaion Oierri uretaratzeko unea.
Zain zituen Zumaiaetik asteen zehar eta egun berean bertaratu-
tako hainbat zale. "Estiratzen ari nintzela, jendeak esaten zidan
ondo egin behar nuela, zaletuak zain nituela eta kriston giroa ari
zirela jartzen", dio Oierrek. Piragua hartu eta berotzera uretara
irten zirenerako, bi aldeetara zumaiaarrak zituen a por ellos oi-
hukatzen: "Ilea lastu egin zitzaidan, oilo ipurdia jarri, eztarrian
korapilo bat, eta begiak malkotan irten nintzen uretara".

Zirkuitua biguna zen, eta estropada arraroa izan zela azal-
du du Oierrek: "Aurreneko portean fuerte sartu ginen, estro-
pada gogorra egin nahi genuen. Hasieran hiru talde joan ginen
aurrean. Guk errelebo gogorra eman genuen, baina norvegia-
rrek gero ez zuten erreleboa eman nahi izan eta geratu egin
ginen. Talde handia elkartu zen berriro. Horrek estropada zail-
du egin zuen; taktikoki eta psikologikoki, beti atzera begira
ibili behar baituzu jakiteko nor doan gaizki". Talde handia
elkarrekin iritsi zen azken kilometroetara eta bertan erabaki
zen txapelduna. Hiru kilometroren faltan erritmoa azkartuz
hasi ziren Aizpurua eta Busto eta 250 metro falta zirela, baze-
kiten garaipena beraiena zela: "Erritmo aldaketa gogor bat



Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

egin behar genuen oraindik, eta ezer txarrik gertatu ezean, garaipena gurea zen".

Xabier Osa ere han zen ikusle eta adierazi digu kanpotik ikusteko oso estropada polita izan zela. Oierrek ere, gauza bere dio: "Sentitzea hor zumaia asko zeudela, kolore laranja ikustea, eta beraien aurrean irabazi behar nuela jakitea polita eta hunkigarria izan zen. Gainera, pasa dudan urtea pasa eta gero, azkeneko metro horietan amorru dena etorri zitzaidan gogora; jakinda jende asko zain zegoela ea noiz eroriko nintzen, katxaperoak botatzeko galtzen banuen... Amorru hori dena burura etorri zitzaidan, eskuak jaso eta oihu egin nuen irabaztean, liberazioa izan zen".

Guztien festa

Asteartean zaletu batzuk joan ziren Xabier Osa ikustera eta igandean jende gehiago joan zen, goizeko 05:00etan Zumaiatik autobusez irtenda. Ehun zaletu baino gehiago egon ziren Tremolaten. "Giroa sortu nahi genuen eta hala egin genuen. Denetik egin genuen: sei metroko pankarta jarri, karrikak, trikitilariak... Jendeak guri argazkiak ateratzen eta filmatzen jardun zuen", dio Xabi Osak. Oier ere zumaia erre jarritako giroaren lekuko izan zen: "Aurreko egunetan kotxeetan etorritako zaleekin egon nintzen, baina ez nekien gradetan zein giro ari ziren sortzen. Orain, Interneten ikusitako argazkietan ikusi dut jendea estropadari begiratu beharrean zumaia erre begira egon zela".

"Mundiala festa bat izan da, Klubaren festa. Urte honetan lan pila egin dugu, era guztietako lanak. Gure jendea mundialean ikustea eta, gainera, aurrean, oso polita izan da guretzat. Azkenean denok irabazi dugu. Amaieran inork ez zuen esaten Oierrek irabazi du, Irabazi in deu! esaten zuten", dio Xabier Osak.

"Amaieran inork ez zuen esaten «Oierrek irabazi du», «Irabazi in deu!» esaten zuten"



ekin
/ ekin@ekin.es, S.L.
Ezkerreko Kalea 10 bidea, 28701 Ezkerre. Tlf: 902 14 3037 ekin@ekin.es www.eokin.es

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL+

OSA
BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412

7
MARES

Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309



Merezitako esker ona

Munduko lau txapel irabazi ditu dagoeneko Oierrek, baina ez du beste kirolean dagoen aitoren bera ikusten. "Lehenengo mundialan jendeak esaten zuen: Sevillan izan da eta zortea izan du. Bigarrenengoan, zorte gehiago. Hirugarren eta laugarrenean konaturatu dira hor lan asko dagoela. Bada garaia, ohartzeko hor dagoen lanaz".


"Batzuk ari dira esaten Oier profesionala dela eta normala dela mundiala irabaztea. Jendeari iruditzen zaio entrenatzen dela eta kito. Baina ez da hala. Goiz eta arratsalde entrenatzen da, ez dauka oporrik, ez jaiegunik, ez dauka kaleko batek duen bizimodua. Bizimodu oso gogorra darama, eta domina bat lortzeko bizitza jartzen du, ez diote ezer oparitzen. Batzuek kritikatu egiten dute, eta hori ez da bidezkoa", dio Xabier Osak. Azken garaipen honekin aitortpena ez bada lortzen, ez dela lortuko uste du Oierrek: "Domina honek hemen dagoen maila baloratzeko lagungarria izatea nahi dut. Hemen egiten duguna baloratzeko, urtero domina asko irabazten ditugu. Beste kirole-

tan emaitza txikiagoak lortzen dira eta berehala goraipatzen dira. Herriak aitortpena egin behar dio talde osoari. Daukagun maila handia da eta hori baloratu egin behar da".

Piraguismoa ezagutzea

"Talde itxia izatearen fama dugu, baina pixkanaka ari gara fama hori kentzen. Guk jendeari gure kirola erakutsi nahi diogu, kiroldegira joaten diren moduan hona etortzea nahi dugu. Gure kirola eta afizioa erakutsi nahi diegu. Ibai eta itsaso berezia dugu. Goazen denok horrekin gozatzera", dio Xabi Osak.

Lantxekin edo barkoarekin behar baino olatu gehiago ateratzen joaten direnei ere gonbidapena egin die Oierrek piraguan ibiltzera joateko: "Olaturik ez egiteko eskatzen dugunean, zerbaitegatik da. Piragua oso ezegonkorra eta hauskorra da; olatu txiki batekin entrenamendu osoa izarra daiteke. Ni ibaian lanean ari naiz, eta lan hori errespetatzea nahi dut. Uretan hitz eginda ez dugu lortzen errespetatzea, eta ea horrela lortzen dugun".



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, Txapartegik emandako tarta eder bat zozketatuko dugu. On egin!



**Zumaia eta inguruak
ez ditugu behar bezala
ezagutzen,
altxor txikien jabe gara
eta askotan ez gara
konturatu ere egiten...
Txoko honek
lagunduko digu gure
txokoak ezagutzen.**

GALDERA:

Beheko plazatik abiatuta, Odieta edo Arrukale aldera egingo dugu, bota berri duten frontoi txikiaren ondotik: Torreberri, "Zubitxo", Iturrikoa, Iturrigoikoa..., eta Iturriko zuloatik gora jarraituko dugu, aldapan. Ezkerraldeko bide edo pista bat hartuta, argazkiko eraikin bitxi eta txiki honetara iritsiko gara. Ura biltzeko balio du, iturria eta aska ere badauzka eta "ponte" izenez da ezaguna. Ponte honen ondoko pista piketik jarraituta, menditxo baten gainera iritsiko gara, gainean baserri bat duenera. Handik behealdera begiratuta, Zumaia bista zoragarria da. Baina mendi gaineko baserriari begiratuko diogu: nola izena du?

Arrasto bat: urte askotan hutsik egon da, erori beharrean, eta duela gutxi berritu dute, baita pintatu ere, kolore gorrixkarekin.

Erantzunak elkartea@baleike.comera bidal, Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behe) edo 943 86 15 45 telefonoan eman azaroaren 3a baino lehen. Erantzunekin batera izen-abizenak eta telefono zenbakia adierazi.

**Parte hartu eta
zorte on!!**

**Aurreko zenbakiko erantzuna:
Andikaraerreka
(edo Andikaerreka)**

Irabazlea: Nagore Osa

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

gostoluen kormioa: bustulegaria
gastur: 15m-4m.

GARRAIOAK
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 537 189 / 655 706 557
Iruñean, 3-2A (Zumaia) • Aitzpiloa, 16-E (Mierlano)

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIK 943 143323
Ortega y gasset, 1

bazkideen txokoa

Txoko berri honetan, zozketa bidez sariak emango ditugu hilero.

Baina, erne! Parte hartzeko bazkide izan behar duzue !!

Idatzi elkartea@baleike.com helbidera, zuen izen-abizenak eta telefonoa adieraziz. Bestela, deitu telefonoz (943 86 15 45) edo utzi zuen mezua BALEIKEren buzoian.

Mezuak bidaltzeko azken egunak:

urriaren 27a (azaroaren 3ko emanaldirako) eta azaroaren 17a (azaroaren 24ko emanaldirako).

Literatur emanaldietara ko sar rerak!

Azaroaren 3an EZKATAK (Leire Bilbao).

Azaroaren 24an TXIKIRA BETI HORDAGO! (Bertol Arrieta).

Emaitzak web orrian jarriko ditugu, dagokion egunaren aurretik.

Zorte on!!

BALEIKE eta TXINPARTAK antolatutako literatur emanaldiak.

Kultur Errota egitasmoaren barruan...

Urola Kostako Kultur Zirkuitua:

- Urriak 20, HAMAR MEZU ETA DEI BAT, Azkoitian
- Urriak 27, MUGALDEKOAK, Zestoan
- Azaroak 3, EZKATAK, Zumaian
- Azaroak 24, TXIKIRA BETI HORDAGO!, Zumaian



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA



Erronka handiena barrura begirakoa izango da

EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) garatzeko ardura hartu berri du Xabier Azkuek. Udaleko Euskara Zerbitzuan jarduten du, beste euskara teknikariarekin batera.

Normalizazioko euskara teknikari berriaren bulegora sartuta, prest ditu Xabierrek guretzako zenbait paper. Nonbaitetik hasi behar eta...

Zer egitasmo dituzue orain eskuartean?

Alde batetik euskalduntzearekin lotuta dauden bi egitasmo ditugu: gurasoen euskalduntzea eta etorkinentzako AISA ikastaroa. Gurasoentzako gida aurtengo berrikuntza bat da: gurasoei aholkuak ematen zaizkie euskararen transmisioaren inguruan; izan ere, azpimarratu nahi da zer garrantzitsua den transmisioa. Eta horren osagarri dira haurren ordutegian eskaintzen diren ikastaroak.

Aurten, ikastaroak merkatariei ere eskaini zaizkie; izan ere, gurasoen ordutegi bera egokia izan daiteke batzuentzat. Erantzuna ere uste baino handiagoa izan da. Aurten hogeit bat lagunak izena eman dute, iaz baino askoz gehiago.

Etorkinena ere aipatzekoa da; izan ere, aurten egin da lehenda-bizikoz, eta ez genekien zenbat jende izena emango zuen.

Bestalde beste egitasmo batzuk ere badituzue eskuartean, ezta? Julene Azpeitia Lehiaketa, adibidez; zenbat zumaiaurkezten dira?

Urtetik urtera aldatzen da. Iaz bost lagun edo izan ziren. Literatur tailerra antolatzen den urteetan, adibidez, nabaritzen da halako igoera bat datuetan.

Nire kezka parte hartzearekin baino gehiago dago banaketarekin lotuta. Orain dela urte batzuk egin zen hamabost urtetan atetarako ipuinen bilduma, baina, gero ez da ezer gehiago egin. Hedapen egokiagoa eman beharko litzaioke liburuari, eta, agian, argitaletxeren batekin hitz egin edo...

Herriko hizkera aztertzeke bekaren ideia nondik nora sortu zen? Beste saiakera bat egon zen, orain dela urte batzuk, eta erdibidean edo bukatu gabe geratu zenez, orain erabaki da berriro egi-tea. Oraingo honetan, eta, kostaldeko herri bat izanik, garrantzi handiagoa eman nahi zaio arrantzaren inguruko terminoei, eta eskakizun zehatz horixe egin da.

Zertarako balioko du ikerketak?

Bada, adibidez, herriko gazteen hizketa moduan eragin nahi bada, ikerketa honek balioko du. Askotan bekatu haxe egin izan da ikastetxeetan: euskara ona eta euskara batua parekatu, herriko hizkera ia-ia galaraziz. Bai eta guraso eta seme-alaben arteko transmisioan ere. Beraz, horren inguruan zerbait egin behar balitz, derrigorrez beharko da horrelako ikerketa bat.

Egitasmoez hitz egin dugu, eta orain zure lanaz: argi daukazu euskara teknikariaren eginkizunak zein diren?

Postu honen titulua edo, haxe da: EBPnko teknikaria, eta planari lotuta dago. Ez da euskara zerbitzua indartuko duen teknikaria. Plan batean sartu da Udala, lan horietan laguntza eman edo ardura hartuko duen pertsona izango da EBPnko teknikaria. EBPnri lotutako lanak dira orain arte egin dituden gehienak eta aurrerantzean ere halaxe izango da. Horrek ez du esan nahi itzultzeko lan bat iristen bada, eta Udaleko Euskara Teknikariak heldu ezin badio, bada, nik lagunduko ez diodanik, edo oso lan handia bada, akaso kanpora bidaliko da... Baina batez ere EBPnrekin lotutako lanak izango dira.

Hor badago talde bat, Aholku Batzordea, herriko taldeek euskararekin nolabaiteko kezka duten norbanakoez osatua. Eta talde

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Indurigrunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
ARROZTEGIA

Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, I
TEL: 943 861325

hori dinamizatu eta talde horrekiko hartu-emanak lantzea ere izango da teknikari honen eginkizuna. Izan ere, EBPN planak guztion lana eskatzen du.

Baina barrura (Udalera) begirako lanak ere izango dira?

Bai. Udalean eta Udaletik hurbil dauden erakunde batzuetan egin izan dira azterketa batzuk, diagnostiko bat eta diseinu bat, baina gero ez da egon baliabiderik horiek martxan jartzeko Udalean. Horrek ez du esan nahi egoera txarra denik edo ezer egin ez denik; saio batzuk egin dira euskara erabiltzeko, jendeak jarraitu du perfilak egiaztatzen eta trebatzen, baina era planifikatuan egitea falta izan da. Gure erroka handia, hortaz, horixe izango da nirea eta beste euskara teknikariari ere bai.

Zer da, orduan, Udalean egin behar dena?

Diseinua egin behar da. Ekintzak egin dira, liberazioak, itzulpenak eta irizpideak egiten dira; baina politika bat falta da zehazteko; euskara ordenantzak, esaterako. Lan handiena, erronka, hauxe izango da: azkeneko urte hauetan gauzak nola aldatu diren aztertu, ikusi, eta zein neurri hartu erabaki.

Zer gehiago landuko duzue EBPNren baitan?

Erronka handiena, esan dugun horixe izango da, barrura begirakoa edo. Bestela, badira urtero errepikatuko diren lanak; dela transmisioari begira, dela urteroko zenbait ekintza. Esaterako, aurtien gurasoentzako gida atera dugu, datorren urtean agian

Kike Amonarriz etorriko da beste hitzaldi bat ematera (iaz bezala). EBPNk proposatzen dituen puntuak lortzeko ekintzak pentsatu eta garatu.

Zein puntu dira garrantzitsuenak?

Barrukoa deitu dugun hori da handiena. Izan ere, Udalez gain badira beste erakunde batzuk ere zerikusia dutenak Udalarekin; kiroldegia, esaterako, enpresa pribatu batek kudeatzen

du, baina Udalak ere badu zeresana. Hizkuntza irizpideak betetzen ez badira, adibidez, proposamenak egin ditzake, edo lizenziak berritu behar diren garaian, eskaerak egin ditzake. Beraz, horiek aztertzea ere izango da lan bat.

Kiroldegia kasua aipatu duzu; horrelakoetan, benetan ba al du Udalak ahalmenik edo eragina izateko indarrik?

Ez dakit zenbaterainokoa izango duen, ahalmena. Hori zehaztea ez da hainbeste teknikariaren lana izango, eta oraingoz ez ditut nik egin horrelako saiakerak, baina esango nuke egiteko ahalmena baduela, eta egiteko asmoa era bai.

Esan dudanez, guk orain barrukoan jarri nahi dugu indarra. Eta hori egiten dugun heinean gero kanpokoari ere helduko diogu. Zumaia Lantzen ere, adibidez, beste horrelako kasu bat izango da. Udalak hor parte du, baina horrek ez ditu betetzen Udalak dituen irizpideak edo EBPN planean proposatzen diren zenbait puntu.

Ba al dago hizkuntza irizpideak betetzen diren edo ez neurtzeko biderik?

Bueno, esaten dizut, eginbeharren artean irizpide horiek finkatzea izango da gure lan bat, Udalaren inguruan edo dauden erakunde horientzako irizpideak finkatzea eta horiek betetzeko eskatzea. Gero, horiek beteko diren edo ez ikusiko da, eta Udalaren esku egongo hor eragina egitea.

Egin beharreko beste lanak aipatu nahiko zenuke?

Lehendik esandakoez gain, lan munduan ere erronka handia da, eta horren barruan merkataritzan edo zerbitzuetan euskara sustatzea. Guk ez dugu zuzeneko esku-hartzerik egingo, lagundu egingo dugu, lehen ere egin den bezala; esaterako, merkataritzarako poteak ateraz, edo ikastaroak antolatuz, edo esku-orriak kaleratuz.

Zer moduz doa lan-munduari arloko lana?

Urrian emango da, hain zuen, industriako enprekin eratu den batzordearen berri eta bi urteko lanaren ondoren azaroa garai ona izan daiteke orain arte egindako lanaren berri emateko. Enpresak plan hauek egin dituzte, enpresa gehiago sartzeko garaia den edo ez, etab...



Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



- Portatila eta ordenagailuak
- Laguntza tekniko
- Tresna digitalak

Eusebio Gurrutxaga, 6
tel. 943143395
ertz@iainet.es

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

Nora joan?

Joan den ostegunean hasi zen Gaztetxolako ikasturte berria. Orain Alondegian dauden arren, datorren urte hasierarako lokal berria estreinatzea espero dute Kantauri enparantzan. Baina ez da hori izango berrikuntza bakarra, barne aldaketak ere izango baitira.

IURE ALTZIBAR eta MAITANE AGIRRE

Zein da gaztea eta zein ez? Nork erabakitzen du non dagoen gaztaroaren muga? Udalaren iritziz, hogeita hamar urte artekoak gazteak dira eta hori erakusten du Gaztetxolaren inguruan hartutako erabakiak: lehen hamabi-hamasei urte bitartekoentzat zegoen eskaintza 30 urte artekoentzat luzatuko dute.

Adin luzapenarekin batera ekintzak aldatu egingo dira. Hezitzaileek esan digutenez, "orain arte aisialdia eta gazteen arteko harremana lantzeaz arduratu" izan dira gehienbat. Badirudi, azken urteotan gazteen aisialdiaren antolaketak mugatu egin dela eta horretatik ateratzen laguntzea da Gaztetxolaren helburua.

Helduagoentzat, berriz, beste gauza batzuk eskaintzea da asmoa, Lide Amilibia zinegotziak esan bezala "adin bakoitzak behar ezberdinak baititu". Besteak beste, ordenagailuak jarriko dira eta horien bidez beken inguruko informazioa, bidaiei buruzko eskaintzak, kooperazio proiektuen berri, lan eskaintzak ezagutzeko erraztasunak... lortzeko aukera izango da.

Horrez gain, hainbat ikastaro egiteko asmoa edo gogoa azaldu dute hezitzaileek: euskal dantzak, tinbalak, sukaldaritza, sexualitate tailerrak, etab. Baina hezitzaileei gustatuko litzaieke gazteak beraingana joatea proposamenak egitera. Aldi berean, Lide Amilibia eta hezitzaileak bat egin dute beraien adierazpenetan eta esan



Sartzeko adina zabaltzearekin "helduagoak gazteen erreferente bihurtuko" direla uste dute hezitzaileek.

digute "Gaztetxolako ekintzak kanpora atera" nahi dituztela "herriko taldeekin erlazionatuz, besteak beste, kultur taldeak, Natur Taldea eta Algorri Interpretazio Zentroa". Aurretik ere badute esperientzia beste talde batzuekin, aurreko ikasturtean Natur Taldekoekin irteera bat egin baitzuten eta handik harremana sortu baitzen gaztetxo eta helduen artean. Hori ikusirik, hezitzaileek uste dute adin aldaketa horri esker "helduagoak gazteen erreferente bihurtuko" direla. "Izan ere, gazteek beraien gura

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA
ITURGINTZA S.L.**
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMALEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

so ez diren helduak ikusiko dituzte". Elkar-keta une jakinetan bakarrik gertatuko da, talde bakoitzak ekintza jakin batzuk izango baititu adinaren arabera.

Azaldu bezala, bereizita egongo diren arren, elkarren berri izango dute, lokala bera izango delako eta hezitzaileak ere arduratuko direlako horretaz. Sarrera Gernikako parketik izango duen lokal horrek 117 m² izango ditu eta hainbat gune izango ditu. Lide Amilibiak esan digunez, "sartu eta ezkerretara biltegi bat egongo da; eskaileretatik igo eta bulegoak egongo dira, ordenagailuak izateko. Gaztetxolak komun bakarra izango du baina ezinduentzat egokitua. Sukaldea izatea ere planteatu dugu, ikastaroak eman ahal izateko; lasai egon, eztabaidatu, lagun berriak egin eta antzekoetarako edo mahai jokoetarako guneak ere egongo dira. Bestalde, eskulanak egin eta mahai tenisean jolasteko mahaiak egongo dira, baita mahai futbola eta eskenatoki txiki bat ere".

Auzokoak beldurrez

Honen guztiaren beste ikuspuntu bat jasotzeko, Kantauri enparantzako auzokideengana jo dugu. Izan ere, han bizi

Beken inguruko informazioa, bidaiei buruzko eskaintzak, etabarren berri lor daiteke.



direnek bilera egin zuten gai honetaz hitz egiteko eta Udalera alegazio bat bidaltzea erabaki zuten. Bertan jartzen duenaren arabera, Gaztetxolan elkartzen diren gazteek beraien etxe azpian kalteak sortuko dituzten beldur dira. Horregatik, eskatzen dute gazteentzako gune hau inguruan bizilagunik ez duen leku batean jartzeko.

Bizilagun batek adierazi digunaren arabera, badakite horrelako lokalak beharrezkoak direla, baina Gaztetxola Aita Mari auzategian zegoenean gertatutakoa errepikatuko den beldur dira.

Gai honen inguruan, Udaleko zinegotziak esan digu "gaztea dagoen lekuaren kanpoan beti egongo da mugimendua, baina hori onartu beharreko gauza da. Gainera, alde denetan dago, bai ludoteka

batean, baita tabernan ere. Hala ere, kontrola egon egongo da, hezitzaileak bertan egongo direlako. Hor behean gazteak egongo dira, baina eskubidea dute beste adin tartekoek bezala".

Hau guztia nola amaituko den urtariletik aurrera jakin-gu dugu, orduan hasiko baita Gaztetxolaren funtzionamendu berria.

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

D'Ana
ileapaindegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

LIBRERÍA AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

English School

Harvest

Klaseak urrian hasi dira baina oraindik ez da berandu. Animatu zaitez!

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

S DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaia plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

San Pedro Parrokiko Stoltz organoa

IKER GONZALEZ COBEAGA

San Pedro parrokian aurki ditzakegun artelanez hitz egitera-koan, Antxietaren erretaula, kaperetan dauden erretaula flamenkoak edota Mendaro Marinelaren botozko taula aipatzen dira. Baina harri horma horiek beste altxor batzuk ere gordezten dituzte, eta horietako bat 1890. urtean Parisko "Stoltz Frères" etxeak eraikitako organoa dugu.

Mendeetan zehar, elizak fedearen adierazle izateaz gain, herrien bilgune, gotorleku eta ikur izan dira. Horrela uler daiteke orduko parroko zen Manuel Gabriel Beobidek, afari batean, "herriko indarrei" eginiko eskaria. Urola ibaian, Arrangoletako paduretan eta kaian egin behar ziren obren proiektuaren onespina ospatzen ari zirela, parrokiarako organo berri bat erostea eskatu zuen, herriaren etorkizunerako hain garrantzitsuak izango ziren lan haien eta herritarrek zuten fedearen adierazle izan zedin.

Organo zaharrari buruz oso gutxi dakigu. Estilo barroko iberikokoa zen, gaur egun Aizarnan, Ataunen edota Aieteko parrokian aurki ditzakegunen antzekoa. Organo harekin zerikusia duen lehenengo albistea 1554. urtean aurkitzen dugu, baina ez dakigu noiz eraikia izan zen, ezta nork egin zuen ere. Juan Bautista Olaecheak XVIII. mendean ospatzen ziren San Pedro jaiei buruz egindako deskribapenean agertzen duen moduan, organo hark, txistuarekin eta abesbatzarekin batera, paper garrantzitsua betetzen zuen San Pedro eguneko meza nagusian. Urte haietan guztietan hainbat konponketa jasan zituen, baina badirudi azkenaldi hartan ia mutututa zegoela.



Manuel Gabriel Beobidek egindako eskari hark 1888ko abenduaren 25ean egindako udal bilkuran jaso zuen erantzuna, hurrengo agirian idatzita geratu zen bezala:

"En la villa de Zumaya a veinticinco de Diciembre de mil ochocientos ochenta y ocho, congregados el Pueblo en su sala Capitular, correspondiendo a la expresa escitación que apelan-

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



icardo J. Azcue Yeregui
Abokatu • Aseguruzak
Finka Administrazioak

txomin aguirre 4, beheak
20.750 zumaya (gipluzkoa)
E-mail: rjazu@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862748

FARMA ZUMAIA
PARAFARMASIA

653 01 96 81

PRODUKTUAK

- Urte eta Haurrentzat, Dietetikak, Kosmetikak, Narkotikoak eta beste zainkarak...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietetik, Meliorazio, Idolojia, Hach Inerzi, Mitojia (Terapiak), Kardiologia, Lumbologia, Integritate, Antidotoak, Duzko Inerzi, Zirkulazio sistema, Kontrastak, Aspirinone, onakak eta eratzak gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA • ZUMAIA



do a los sentimientos religiosos y caritativos de sus feligreses ha dirigido el cura ecónomo de la Parroquia en la Misa que acaba de celebrarse... se tomó entre otros el siguiente acuerdo:

Ratificar igualmente el encargo que teniendo a las especiales condiciones que concurren a Don José Ignacio Aldalur hizo al mismo la Junta de Fábrica para que gestionara... la adquisición de un órgano adecuado a esta Parroquia... precio de sesenta mil reales, autorizándole para que entable las condiciones facultativas que juzgara oportuno"

Jose Ignacio Aldalur, azkoitiarra izanik, Azpeitiko Soreasuko San Sebastian parrokiako organista zen. Karlistadak zirela eta, Parisera alde egin behar izan zuen eta bertan garai hartako organo egile famatuenekin harremanetan hasi zen. Organogintzak garai bakoitzeko teknologia aurreratuena erabili izan ditu eta garai hartan, Parisen organoaren mundura hainbat aldaketa ekarriko zituen une bat bizi zen: organo erromantikoaren sorrera. Bi proiektu aurkeztu ziren: Cavaille-Coll etxe famatuarena bata, eta Stoltz etxekoa, bestea. Azken etxe hori hasieran bigarren mailako organoak egiten hasi zen, baina denborarekin kalitate handiko lanak egin zituen, eta Zumaiaren dugun organoa da horren adibide. Organo erromantiko garrantzitsuenekin parekatzen badugu, Zumaiako organoa txikia da, 15 erregistro (soinu ezberdin) besterik ez baitu. Hala ere, bere kostua ez zen izan hain txikia, garaiko 16.100 pezeta balio izan baitzuen. Diru hori hainbat erakunde eta lagunen artean bildu zen: Udala, parrokoa, garai hartako alkate zen Eusebio Gurrutxaga, Marinelen San Telmo Kofradia eta beste diru laguntza txikiago batzuk, besteak beste.

Organoaren muntaketa lanak 1890eko apirilean amaitu ziren eta Jose Ignacio Aldalurrek buruturiko azterketan agerian geratu ziren organoaren ezaugarriak. Nahiz eta 15 erregistro besterik ez izan, guztiak kalitate handikoak ziren eta guztira soinu eder eta orekatua sortzen zuten. Horren arrazoia maisu baten eskuetan aurki dezakegu, organoaren harmonizazioa (hodi guztiei azken ukitua ematea eta organoaren soinuaren berdintzea) garai hartako harmonizatzaile onenetakoa zen Fer-

nand Princek burutu baitzuen. Aipatzekoa da Azkoitiko Cavaille-Coll organo famatuan urtebete igaro zuela dena behar zen moduan jartzen.

Orduetik hona, organo hau joaz gozatu dugunok Aldalurren hitzak berretsi izan ditugu. Azpimarragarriak dira, besteak beste, organo jole eta musika egile handia izan zen Luis Urteagaren hitzak. Hamabost urtez San Pedro parrokiako organo jolea izan ondoren, Donostiako San Bizente elizara joan zen eta bere hitzetan parrokia hartako Cavaille-Coll-Mutin organoko oboeak ez zuen Zumaiakoaren kalitate eta gozotasunik. Bestalde, organo honen beste ezaugarri bat parrokiaren tamainarekin daukan oreka da, bere soinuekin eliza osoa ederki betetzen baitu.

Hori guztia kontuan izanik, esan dezakegu parrokiako organoa artelan eder bat dugula. Hala ere, koadro edo eskultura batekin gertatzen ez den bezala, organo batek beste zerbait behar du bere edertasunaz gozatzeko: kutxa erraldoi horren barruan dauden eztainguzko, berunezko eta egurrezko hodieta-rik (925 inguru) musika aterako duen organo jole baten lana, alegia.



Albaitaria
Noli Gormediz

Basodi 7 beheak - 20750 Zumaiak - Tel.: 943 143 310

Email: veterisari@basodivet.com
Web orria: www.basodivet.com

Orduak: 11-13 / Arratsak: 16-19:30 / Azkeneko gaueko ordua: 18:00-19:00

Lentaketa: 685 725 787 Etxe eta enpresa beretarako

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

fidatzeko baimen guztiak



ZINEMALDI SOZIALA

urriaren 16tik 19ra, 22:00etan

Indigenek egindako fikzio eta dokumentalak



1. EGUNA

- **RAWEKE IRA/ Manipulazio genetikoa.**

DOKUMENTALA: Zeelanda Berria, 2002, 58 minutu.

Sinopsia: Raweke ira dokumentalak, iritzi tradizionalen inkesta baten bitartez, ingeniariaritzaren eta organismoen manipulazio genetikoa aztertzen du, beti ere maorien ikuspegitik, eta agerian agertzen da maori askok trans-espezien delako ingeniariaritzaren gorrotatzen dutela. Gainera, tribu askotan oso kezkatuta agertzen dira, gero eta gene eraldatu gehiago sartzen ari delako elikaduraren katean. Dokumentalak ikuspegi orekatua eskaintzen du, Zeelanda Berriko zientzialari batzuen arteko elkarriketa eta guzti; eta lehen hezkuntzarako zientzia-proiektu batean jartzen du arreta, pil-pilean dagoen gai polemiko honen hainbat alderditan argia egiteko asmoz.

- **WICHI**

DOKUMENTALA: Argentina, 2002, 24 minutu.

Sinopsia: Wichiak, Okat komunitatea, Pilcomayo ibaiaren ertzetan, Saltako probintzian, Argentinaren Errepublikako iparraldean. Antzina, ehiztari-biltzaileak; gaur egun, ordea, zurien presio ekonomikoa eta gaixotasunak direla eta, gazte askok gauza positibotzat jotzen du taldea utzi eta, etorkizun hobe baten bila, herri eta hirietara jotzea.

- **KINJA IAKAHA/ Egun bat herrixkan**

DOKUMENTALA: Brasil, 2003, 40 minutu.

Sinopsia: Waimiri eta Atroari herri desberdinetako sei indiar, Amazonian daudenak, beren familien eguneroko bizimoduaren berri ematen dute. Cacao herrian. Irudi horiek "Egun bat herrixkan" osatzen dute, beren bizimodua eta naturarekin duten harreman sakona agertzen duten eszena intimoz beterik.

2. EGUNA

- **LURRA GURE ITXAROPENA- PANAMA PLANARI AURRE EGINEZ**

DOKUMENTALA: Mexiko, 2003, 29 minutu.

Sinopsia: Mexikar komunitateetan Puebla Panama Planaren politikak nola ari diren ezartzen erakusten du dokumental honek, baita Istmoaren Iparraldeko indigenek inposaketa honi nola egiten dioten aurre ere.

- **BELDURRA GAINDITUZ**

FIKZIOA: Bolivia, 2004, 55 minutu.

Sinopsia: Emakume indigena borrokan, dagokion lekua hartzeko, aintzat hartua izateko eta bere ahotsa entzunarazteko. Istorio honek aymara familia baten eguneroko bizimodua ager-

tzen digu; patu hobe baten bila, goi-lautadatik Bolibiako La Paz iparreko behe-lurretara aldatzen den familiaren istorioa.

• **HITZ ZAPATISTAK INJUSTIZIAREN KONTRA**

DOKUMENTALA: Mexiko, 2002ko abendua, 34 minutu.

Sinopsia: Indigenen duintasunaren aldeko mobilizazioa(2001), Mexikoko herri indiarren autonomiaren aldeko borrokan diharduen mugimendu nazionala. Zer gertatu zen Txiapaseko komunitate autonomoetan ibilaldiaren ostean, eta zer-nolako erantzunak eman zizkien botereak indiarren eskaerei. 1994tik hona matxinaturik dauden indigenen komunitate zapatistentzat, gaur egun inoiz baino gehiago, bizitza duin baten aldeko borroka eguneroko erresistentzia-ekintza izaten jarraitzen du.

3. EGUNA

• **JOHNNY GREYYES / Johnny Begi grix**

Fikzioa: Kanada, 2000, 76 minutu.

Sinopsia: Bere aita tiroka hil zutenetik, Johnnyk espetxean eman du ere bizitzaren zatirik handiena. Han " familia berri bat" egin du, barruan preso dagoen emakume bat ezagutu du (Lana) eta berarekin maitemindu da. Baina espetxetik kanpoko zama handia bihurtu da emakumearentzat, bere familia zatitua berriro elkartzen saiatu denean. Ameriketako emakume indiarren arteko harremanen gaia landu den lehen aldia.

• **EMAKUMEAREN BIZITZA ERRESISTENTZIA-BORROKAN**

DOKUMENTALA: Mexiko, 19 minutu.

Sinopsia: 1994an, " Emakume zapatisten lege iraultzaileak" argia ikusi zuen, eta harrezkero biztanleen segmentu honen egoera zalantzaz beterik dago. "Emakumearen bizitza erresistentzia-borrokan" emakume zapatistek hainbat galderei ematen dizkieten erantzunez osaturik dago. Eguneroko bizimoduaren girotuta, batez ere etxe barruko espazioetan, bideo honek

aukera eskaintzen digu ikusteko nola joan diren gauzak aldatuaz komunitate hauetako gizarteetan. Erresistentziaren oinarrian diren emakume hauek, beren testigantza emateaz gain, argitzeke dauden hainbat kontu planteatzen dute.

4. EGUNA

• **HERIOTZA SIONEN**

DOKUMENTALA: Peru/AEB, 2003, 25 minutu.

Sinopsia: 70eko hamarkadan petrolioak aurkitu zuten Achuareko jendearen betiko lurren azpian, Peruko Amazonas inguruko leku isolatu batean. Ordur geroztik, kutsadurak izugarritzko eragina izan du Corrientes Ibaian barrena bizi diren komunitateetan, non indigena asko abandonaturik sentitzen diren eta bere kasa defendatu behar diren.

• **JOKAERAK ALDATUZ: EKITATEA SORTUZ**

DOKUMENTALA: Bolivia/ Euskadi. 2004. 50 minutu.

Sinopsia: Errealizadore indigenek Euskal Herrian filmatu duten dokumentala. Gizarteak gizonezkoekin erlaziozartzen dituzten lanak egiten dituzten emakumeekin elkarriketak.

• **FUSILA, METRAILA, HERRIA EZ DA ISILDUKO**

DOKUMENTALA: Bolivia, 2003, 17 minutu.


Sinopsia: Bolivian, 2003ko otsailean eta urrian gertatu zirenak, Gonzalo Sanchez de Losada gobernutik irtetea eragin zutenek, indarrean zegoen sistema politikoaren goitik beherako errefusa ekarri zuten. Herria mobilizatu egin zen eta, premiazko eta berme handieneko eskaeren artean, Biltzar Konstituziogilea eratzea exijitu zuen.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

ZINE FORUM

Azaroaren 2an, gaueko 10:15ean

Camino a Guantánamo

Zuzendaria: Michael Winterbottom eta Mat Whitecross

Aktoreak: Riz Ahmed, Farhad Harun, Arfan Usman



Lau gazte britainiar dira 2001. urteko amaieran kokatzen den istorio erreal honen protagonistak. Horietako bat ezkontzera doa Pakistanera eta bere lagunak oporretan iritsiko dira, bide batez senide batzuk bisitatzeko asmoz. Afga-

nistango muga zeharkatzen dutenean, ordea, amesgaizto ikaragarri batean murgilduko dira. AEBetako tropek Al Qaedako laguntzaile talibanak direla argudiatuz hiru gazte atxilotu egingo dituzte, eta laugarrena desagertu egingo da. Tortura krudelak jasan ondoren, Guantánamora eramango dituzte, eta han oinazeak beste bi urte luzetan jarraituko du. Ondoren aske utziko dituzte errugabetasuna aitortu gabe. Mezu garbi batekin itzuliko dira etxera: "Kontatu munduari hemen gerta-tzen dena, zuen ardura da".

Benetako istorioa linealtasunarekin ageri da, protagonista errealean hitzak eta lau aktore gazteren eszenak tartekatuta. Whitecrossek hilabete osoa pasatu zuen hiru gazteak elkarrizketatzen eta hortik abiatuz estilo aldetik 2002. urteko *In this world*-en tankera duen filma lortu dute. Beraiek bizitakoaren lekukotasuna da filma hiru gazteentzat; zuzendariarentzat, berriz, gizartean eztabaida eragiteko modua. Gaur egun, 500 preso inguru daude Guantánamon eta gutxi batzuk baino ez dituzte epaitu.

Winterbottomen izena nahitaezko erreferente bihurtu da gaur egungo zineman. Beste erakustaldi baten aurrean gaude, eta garbi azaltzen du nahi duena egin dezakeela. Salaketa zinema zuzena, pasa den otsailen merezimendu osoz Berlinaleko zuzendari onenaren zilarrezko hartza jasotzeko balio izan zuena.

Azaroaren 16an, gaueko 10:15ean

Contra la pared

Zuzendaria: Fatih Akin

Aktoreak: Birol Ünel, Sibel Kekilli, Catrin Striebeck



Gizonezko eta emakumezkoa euren buruaz beste egiten ahalegindu ondoren, suspertze ospitale batean ezagutu eta aurreranzko ibilbidea elkarrekin egitea erabakiko dute. Euren arazoak gainditu ezinik bizi diren bikote honen istorioa kontatuko digu filmak eta amour fou deritzana izango da, hain zuzen, biziko dutena, hau da, arazoak eta egoerak azken muturreraino eramaten dituztenak.

Pelikula Hanburgoko turkiar komunitatean dago kokatuta eta Fatih Akin zuzendariak ondo baino hobeto asmatu du azaltzen zer desberdintasun dagoen Hanburgoko turkiar komunitatea eta Turkia bertako kulturaren artean. Filma gogorra da, baina samurtasunean ere asmatzen du eta batez ere bere iraganak baldintzatuta bizi den emakume baten istorioa da, etorkizun zalantzarantz doan emakumezkoaren independentzia nahiaren bilakabidea kontatuko digu, hain zuzen. Azpimarragarria Istanbul atzean dutela aldian behin azaltzen den musika talde baten ereserkiak eta, batez ere, Sibel Kekilli emakumezko aktorearen lan egia, pasioz bete, askatua eta aurreiritzirik gabea. Izugarri ona.

- Arrainak eta haragiak
aukeran

- Eguneako menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

IKASTAROAK

INFORMAZIOA: Foronda Kultur etxean 943-861056

YOGA:

Astearte eta ostegunetan
18:30ean kultur etxean.

KONTROL MENTALA:

Urriaren 21etik azaroaren 25ra,
larunbatetan 10:30etan.

PINTURA TAILERRA:

Astelehenetik ostegunera.
Urriaren 2tik aurrera.
Antolaketa bilera: irailaren
28an, 19:00etan, kultur etxean.
BI ARRI:

Eskulanak, Tiffany, Patchwork eta
Josteko lan txikiak.

Urritik ekainera. Egunero, goiz
eta arratsalde, Alondegia
eraikuntzan.

Informazioa eta izen ematea: 646
85 42 90 / 660 98 32 89

HAUR PLASTIKA TAILERRA

Urriaren 8tik ekainera. Astelehen
edo Asteartean, 17:30etik
19:00etara. Matrikula: 100
euro.

TAI CHI:

Osatzeko taldea (beste ikastaroetan
ibili direnentzat), ostegunetan
18:00etan.

Matrikula: 25 euro.

SABEL DANTZA

Larunbat goizetan, urriaren
21etik abenduaren 30era,
10:30etik 13:30era.
Hasiberrientzat eta
Hobekuntza. Matrikula: 20
euro.

KUTXA GELAK/AULAS KUTXA:

Tai Chi, eskulanak, photoshop.

Informazioa eta izen ematea:

www.kutxasocial.net edo
902540040 tel.zkian.

K.Z.Gunea: Internet ikastaroak.

Informazioa: 943-862866

HELDUEN ZAINTZA: "El estrés
del cuidador de personas
mayores"

Urriaren 23tik 27ra, Branka
eraikuntzan.

Informazioa eta izen ematea:
LAHAR ELKARGOA, 943-
474182.

DEIALDIK

- Maketa dirulaguntzak: herriko
talde gazteentzat. Eskaerak
aurkezteko epea: azaroaren 24a
bitartean.

- ASTE MIKOLOGIKOA: urriaren
27tik 29ra, Alondegia aretoan.

IRTEERAK

Informazioa, Turismo bulegoan
943-143396

Txangoak:

-Urriak 28: Artajona-Tafalla-Olite

-Azaroak 18: La Arboleda-
Trapaga

Bisita gidatuak:

-Geologikoa: urriak 14 eta 22,
azaroak 19 eta 25

-Kulturala: urriak 12 eta 14,
azaroak 1 eta 4

- Deba-Zumaia trekkinga: urriak
15

MUSIKA IRTEERA:

BARAKALDOKO ANTZOKIRA, "EI

barbero de sevilla" opera
bufoa ikustera.

Urriaren 21ean, larunbat.

Sarrerak salgai, Forondan,
urriaren 9tik aurrera.

ERAKUSKETAK

Urriaren 16tik 22ra, Alondegian:
Kontsumoari buruzko
erakusketa, "ETIKETEN
garrantzia".

Urriaren 16tik 22ra, Foronda
kultur etxean: ANDERSEN
ASTEIA

Urriaren 25tik 29ra: Aste
Mikologikoa

Urriak 31tik azaroaren 12ra,
J.L.Ezeiza

Azaroaren 15etik 30era, "Ez zara
inoren panpina"

URRIA

16tik 19ra

Zinema Sozial zikloa, 22:00etan,
Aita Mari aretoan.

Ostirala, 20

22:00etan, Aita Mari aretoan,
antzerkia: "AHULKIAK"

Igandea, 22

12:00etan, Aita Mari aretoan,
haur antzerkia: "AHATETXO
ITXUSIA"

AZAROA

Osteguna, 2

22:15ean, zine forum saioa:
"Camino a Guantánamo".

Ostirala, 3

Kultur errota

Urolako Kultur

Zirkuitua

antolatutako

eskualdeko lau

elkarteren artean.

Horri esker, hainbat

literatura eta musika

emanaldiz gozatzeko

aukera izango dugu

Azkoitia, Zestoan eta

Zumaian.



Baleike eta Txinparta elkarteen
esku, Literatur emanaldiak:
LEIRE BILBAO, "Ezkatak".

Osteguna, 9

19:00etan, Alkoholiko

Anonimoak taldeak
antolatutako hitzaldia Gizarte
Zentroan.

Osteguna, 16

22:15ean, zine forum saioa:
"Contra la pared".

Ostirala, 17

22:00etan, Aita Mari, antzerkia
TXALO taldearen "ARTE"

Igandea, 19

12:00etan, haur antzerkia "Pizti
domatzaila"

Asteazkena, 22

St. Zeziliako kalejira, iluntzean.

Osteguna, 23

17:30ean, haur liburutegian,
ipuin kontaketa, Pello
Añorgaren eskutik.

Ostirala, 24

Baleike eta Txinparta elkarteen
esku, Literatur emanaldiak:
BERTOL ARRIETA, "Txikira beti
hordago".

Larunbata, 25

Iluntzean, Maria eta Jose
aretoan, Udak Musika Bandaren
Santa Zeziliako kontzertua

22:00etan, Alondegian, antzerkia:
"Los Caminos de Juana" – "Los
cuatro vientos" teatroa

Osteguna, 30

22:15ean, zine forum saioa:
"Cruzando el puente: los
sonidos de Estambul".



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko
baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe
eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behe Tel. 943 861018

ile-apaindegia



ETXEZARRETA, 9

TEL: 943 86 10 21

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industriegunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak